



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko ekainaren 2a

40 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, 1990eko Hitzarmen Ekonomikoaren 8.3. artikulua aldatzea eskatu duena, bereizkeriazko edozein alderdi kenduz, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa, Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroek (FOSHEZ) herritarrei eskaini dizkieten zerbitzuen onespene eta kontsiderazioa onartu eta berretsi egiten duena, Jose M^a Ezpeleta Martínez eta Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentariak aurkeztua (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Kable bidezko telekomunikazioen lurralde-barruti bakarra sortzeari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egin (11. or.).
- Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egiteari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (11. or.).
- Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bilerei eta beste arazo batzuei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (12. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean izandako elkarriketei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).
- Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).

- Beste estatu batzuetatik datozen zainzurien osasun kontrolari buruzko galdera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Huarte enpresak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruzko galdera, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak egina (14. or.).
- "Cobra 97" izeneko ariketa militarrei buruzko galdera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Tuterako Juduei buruzko Jardunaldiak egiteari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Gizarteak eta herritarrak parte hartzeko organo aholkulariei buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (17.or.).
- Ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Las Cañas aintziraren zaintza zerbitzuari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruzko galdera, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Nafarroako Gobernuak Donejakue Bidea dela eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Botulismo-kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatiari dagokion kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (22. or.).
- Gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartu eta baztertu behin-behineko zerrenda (24. or.).

B Sailsa:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena**ZIOEN ADIERAZPENA**

Ingurugiroaren babes publikoa da, Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26ko 102/1995 epaian esandakoaren arabera, botere publikoen ekintza bat, bai balibide naturalak bai Natura bera babestu, lagundu, defendatu, sustatu, babestu eta begiratzeko.

Ingurugiroaren zaintza publikoak ekintzen-multzo zabala hartzen du bere baitan: baliorik behinena identifikatzea, haien babes juridikoa, babesteko araubidearen arau-hausteei zehapen administrati-

bo edo penala ezartzea, partikularren jarduera egokiak bultzatzea dirulaguntzen, laguntzen, zerga onuren eta abarren bidez, elementu naturalak (ura, airea, lurra, fauna, flora, paisaia, eta abar) endekatzeari galarazteko zerbitzu publikoak ematea.

Herritar orok, salbuespenik gabe, du ingurugiro egokiaz gozatzeko eskubidea, eta botere publikoek babestu egin behar dute. Botere publiko guztien zeregina da ingurugiroa babestea, eta horiek guztiek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, jardun behar dute Konstituzio-betebehar hori betetzea bermatzeko.

Europako Batasunaren ingurugiro-politika, 1992ko otsailaren 7ko Maastrichteko itunean agertzen dena, hurrengoetan oinarritzen da: kautela eta aurrea hartzeko ekintzaren hatsapenean, ingurugiroari egindako erasoak sorburuan bertan, ahal bada, zuzentzeko hatsapenean, eta kutsatzen duenak ordaindu behar duelako hatsapenean. Europako herri aurreratuenetan hurrengo hatsapena ari da hedatzen: “Ingurugiroa babestu edo kutsatzen ez duenak, zerbait hartu edo desgrabatzen du”. Hatsapen hori, jakina, Natura babesten eta zaintzen laguntzen duten herritarren eta enpresen ekintza intentsibo eta banakatuei ezarri ahal zaie.

Zerga pizgarriari buruzko Foru Lege honen helburu dugu ingurugiroa babesten modu eraginkorrean eta solidarioki laguntzen duenari ordaintzea.

Nafarroako erakundeek hainbat dirulaguntza ezarri dute azken urteotan, ingurugiroa babestu eta babesteko lanetan diharduten gizarte-talde, enpresa eta norbanakoen alde. Hala ere, zerga-salbuespen edo onuren bitarteko laguntza ekonomikoaren multzoa ematen zen huts, jarduera ekonomikoaren beste arlo batzuetan ere izaten denaren antzekoa (industria, etxebizitza edo nekazaritza).

Berrikitan, abenduaren 30eko 24/1966 Foru Legeak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, bere 69. artikuluan, garrantzizko lehen urratsa eman du, zergaren kuota garbiaren 100eko 15eko

kenkaria jarri baitu enpresaren jarduerak dakarren kutsadura txikitzeari eta zuzentzeari loturik dauden aktibo finko material berrirako inbertsioendako.

Ildo horri jarraituz, beharrezko da gure berezko zerga-zuzenbidean zerga-pizgarri multzoa ezartzea, Konstituzioaren 45.2 artikulua aldarrikatzen duena beteko baldin bada, alegia, euren jarduera edo ondarearen bitartez ingurugiroa defendatu eta bereoneratzeko laguntza eman dezaketenen beharrezko elkartasuna. Horretarako, foru-zerga eta udal tributu batzuk aldatu egin nahi dira. Aldaketa gehienetan erabili diren zerga-irizpideak, interes kulturalerako ondasunen titularrendako pizgarrietan erabili ohi diren berberak dira. Hartara, legegileak zergen aldetiko pizgarriak ematen dizkie bai gure ondare historiko kulturala babestu eta zaintzen dutenei, bai gure ondare natural balioetsua babestu eta bereoneratzen dutenei, gure arbasoek utzi digutenez, hurrengo belaunaldien dako ere babestu behar baitira.

LEHEN KAPITULUA **Xedapen orokorrak.**

1. artikulua. Foru Lege honen xedea da zerga-pizgarri jakin batzuk ezartzea, ingurugiroa eta haren balio naturalak babestu edo hobetzea helburu bakar edo nagusi duten pertsona eta jardueren alde.

2. artikulua. Foru Lege honen ondorioetarako, ulertu behar da:

a) "Naturguneak": Hirigintza legediak lurzoru ez urbanizagarritzat sailkatutako edozein lur, Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak ezarritako kategoriaren baten barruan sartua, eta baita haien babespeneko bazter-eremuetan direnak ere.

b) "Babestutako habitatak": Hirigintza legediak lurzoru ez urbanizagarritzat sailkatutako lurrak, babes bereziko eremuetan edota, ezar daitezkeen jarraibide komunitarioen arabera, Nafarroako Gobernuak Natura 2000 Europako sare ekologikotan sartzeko proposatutakoetan direnak, edota basa fauna eta haren habitatatak babestu eta kudeatzeari buruzko Foru Legearen arabera ezarritako basa faunaren babes eremuetan daudenak.

BIGARREN KAPITULUA **Pertsona Fisikoen Errentaren** **gaineko Zerga.**

3. artikulua.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 74. artikuluko 5. zenbakia e) eta f) letrak gehitu zaizkio, hurrengo testuarekin:

"e) Gaiari buruzko arautegi bereziak aurreikusi naturgune edo babestutako habitaten kategoriatan batetan sartutako edo hurrengo hiru urteetan halakotzat jotako lurrak erosteko inbertsioen 100eko 15a, baldin eta erositako lurrak titularraren ondarearen barruan irauten badu bostu urtez, gutxienez.

f) Aurreko letran ezarri betebeharrak betetzen dituzten lurren kontserbazio, hobekuntza, bereoneratze, babespen eta hedatze gastuen 100eko 15a, zerga-kengarriztat hartu ezin daitezkeen neurrian, etekinak zehazteko ondorioetarako, hala egokitzen denean.

4. artikulua.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 74.7.a) artikulua aurreikusitako ondorioetarako, interes publikoko jotzen dira natura, zaindu, defendatu eta aztertze elkartek, eta animaliak zaintzekoak ere.

5. artikulua.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 74. artikuluko 7. zenbakia c) letra gehitu zaio. Horra edukia:

"c) Gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo babestutako habitat deklaraturako lurri buruzko dohaintza puru eta xingleen 100eko 15a, Nafarroako Toki Entitateen edo Foru Komunitatearen alde egiten bada, beti ere."

6. artikulua.- Egurra aprobetxatzearen ondorioz etekinak ohiz kanpoko etekintzat joko dira, dagokion ekoizpen-zikloa osatzen duen urte-kopuruaren arabera.

HIRUGARREN KAPITULUA **Ondarearen gaineko Zerga**

7. artikulua.- Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 5 artikuluari 7. zenbakia gehitu zaio:

"7. Hirigintza legediak lurzoru ez urbanizagarritzat sailkatutako lurrak, gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo babestutako habitat deklaraturako kategoriaren baten baitakoak."

LAUGARREN KAPITULUA **Sozietateen gaineko Zerga**

8. artikulua.- Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 70. artikuluaen titulua aldatu egin da. Hona nola geratuko den:

"Kenkariak, liburuen edizioetan, ekoizpen zinematografikoetan, interes kulturalerako ondasunetan eta naturgunetan egindako inbertsioengatik."

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 70. artikuluari 4. zenbaki bat gehitu zaio:

“4.- Hirigintza legediak lurzoru ez urbanizagarri-tzat sailkatutako lurretan, gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo babestutako habitat deklaraturako kategoriaren baten baitakoetan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute aipatu lurretan benetan egiten diren inbertsioen kuota likidoaren 100eko 10eko kenkaria egiteko. Ondorio horietarako, inbertsioztat joko dira lurrak eta haien balio naturalak erosi, zaindu, konpondu, hobetu eta babesteko erabili diren kopuruei dagozkien ekitaldi batzuetan amortizatzekeo gastuak.”

BOSGARREN KAPITULUA

Ondoretza eta Dohaintzei buruzko Zerga.

9. artikulua. Mortis causa eskualdaketetan eta mendien edota gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo babestutako habitat deklaraturako lur ez urbanizagarrien dohaintzetan, Ondoretza eta Dohaintzei buruzko Zergen zerga oinarria gutxitu egingo da, hurrengo eskalaren arabera:

a) 100eko 95a, Naturgune edo babestutako habitat deklaraturako lurretarako.

b) Nafarroako Oihan Ondarea Zaindu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen arabera, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak onetsitako proiektu teknikoa edo antolamendu plana duten mendiatarako, 100eko 80a.

c) Gainerako mendiendako, 100eko 50a, beti ere haien baso izaera aldatzen ez bada eta eskuratu dituenak besterendu, alokatu edo ustiapena lagatzen ez badu hurrengo hamar urteetan.

SEIGARREN KAPITULUA

Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

10. artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 17.1 artikuluko hamargarren zenbakiko lehen lerroaldea aldatu egin da. Honela geratuko da:

“10. Landa lurren eta eraikigarriak ez diren gairontzekoen emanaldiak, bertan kokaturiko erai-kuntza oro barne, nekazaritzako ustiapena burutzeko beharrezkoak badira, gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo babestutako habitat deklaraturakoenak, eta parke eta lorategi publiko edo erabilera publikoko kale eta bideetarako lurretarako soilik erabilitako lurren emanaldiak.”

11. artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 17.1 artikuluko hemeretzigarren zenbakiko bigarren lerroaldea aldatu egin da. Honela geratuko da:

“Ulertuko da aurreko lerroaldean sarturik daudela lanbide elkargoak, ganbara ofizialak, ugazaba elkarteak, natura eta animaliak babestu, begiratu eta ikertzeko elkarteak, eta atal honek aipatzen dituen erakunde edo entitateak biltzen dituzten federazioak.”

12. artikulua.- Abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 37. artikuluko bigarren zenbakiari hamalagarren zenbakia gehitu zaio. Hona testua:

“Naturguneak eta babestutako habitatak zaintzeko eta bereoneratzeko zerbitzuak, eta baita ingurugiroa defendatu eta bereoneratzeko zerbitzuak ere, erregelamenduz zehaztuko denaren arabera.”

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

13. artikulua.- 1. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko salbuespen objektiboa izango dute natura babestu, defendatu eta ikertzeko eta animaliak babesteko xede duten elkarteak, gizarte interesekotzat jota baldin badaude.

2.- Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira titularitate pribatuko lur ez urbanizagarrien eskualdaketak, gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo babestutako habitat deklaraturata baldin badaude lurrok. Eskualdaketaren onuradunek, beti ere, pertsona fisiko zein juridiko, hitza eman beharko diote Nafarroako Gobernuari lurrak dagokion Erabilera eta Kudeaketa Planaren bidez zaindu eta bereoneratzeko dituztela, edota, planik ezean, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horretarako emango dizkien jarraibideei men eginez.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

Toki tributua

14. artikulua.- Lurralde Kontribuzioa.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 136. artikuluari k) letra gehitu zaio, hurrengo testuarekin:

“k) gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera beren beregi eta banaka naturgune edo habitat

babestutzat deklaraturako lurzoru ez urbanizagariak.”

15. artikulua.- Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga.

Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 170. artikuluari 1 bis zenbakia gehitu zaio, hurrengo testuarekin:

“1 bis. 100eko 90eko zerga-hobaria egingo da zergaren oinarrian, eraikinen, instalazioen eta obren xede nagusi edo bakarria baldin bada gaiari buruzko arautegi bereziaren arabera naturgune edo habitat babestutzat deklaraturakoak zaindu, bereoneratu edo hobetzea.”

16. artikulua.- Tasak.

Obra eta eraikinak egiteak, helburu nagusi edo bakarria baldin bada gaiari buruzko arautegi bere-

ziaren arabera naturgune edo habitat babestutzat deklaraturakoak babestu eta bereoneratzea, 100eko 90eko onura edo hobaria izango du obra eta eraikinak baimentzeko derrigorrezko permiso edo lizentziei dagozkien tasen zerga-kuotan.

Xedapen derogatzailea

Derogaturik geratu dira Foru Lege honek xedatuaren aurka doazen lerrun bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken Xedapenak

Lehena.- Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatzeko beharrezko den erregelamenduzko xedapen oro emateko.

Bigarrena.- Foru Lege honek 1998ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokratikaren Elkargunea» Parlamentari Taldeak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian agitaratu dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN ADIERAZPENA

Konstituzio Auzitegiak martxoaren 20an emandako 61/1997 epaiak, ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegileaz onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legeko Testu Birbiduari buruzkoa, Estatuko legegileak oinarritzko legeditzat jotako artikulurik gehienak derogatu egin ditu eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak haietara jotzen zuen.

Epai hori agertzeak eta Estatuak, gero, apirilaren 14ko 7/1997 Legea, lurzoruaren eta lanbide elkargoen inguruko neurri askatzaileei buruzkoa, emateak zalantza sortarazi dute Nafarroan hirigintza-arloko hainbat gaiari ezarri behar zaion araubideari buruz. Horietako bat, garrantzikoena agian, dugu urbanizagarritzat sailkatutako lurzoruaren norbanakoek eskura dezaketenen hirigintza-aprobetxamendua finkatzearen ingurukoa. Horri buruzko %85eko portzentaia ez da Lurraldearen Antola-

menu eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ageri. Hiri-lurzoruari buruzkoan, berriz, Foru Legeko 13. artikulua jarraitzen du indarrean Nafarroan.

Hirigintza-eragile publiko zein pribatuei segurtasun juridikoa emateko asmoz, halako ziurtasun bat eman behar zitzaion hirigintza-jarduketei lurzoru urbanizagarrian norbanakoek eskura dezaketan hirigintza-aprobetxamendua finkatzeko garaian, eta horrekin lotuta, udalei eman behar zitzaion aprobetxamendu portzentaia finkatzekoan ere, betebeharrak horretan gauzatzen baita hiri-antolamenduaren funtzio publikoa betetzekoan, botere publikoen hirigintzak sortzen dituen gainbalioetan komunitateak izan behar duen partehartzea. Horiek horrela, Konstituzio Auzitegiak 1992ko Testu Birbilduko zegozkion xedapenak deuseztu egin dituzenez eta lurzoruaren eta lanbide elkargoen inguruko neurri askatzaileei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Lege estataleko beste artikulua batzuk Konstituzioaren kontrako izan daitezkeenez, aipatu epaiaren ondorioz, bidezko da Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 13. artikulua zehaztea, Nafarroan, lurzoru urbanizagarrian, eskura daitezkeen hirigintza-aprobetxamenduari ezar dakioken araubideari buruzkoan, hauxe ere aipatuz: Foru Legeari egokitu gabeko hirigintza antolamenduko plan orokorrak edo hirigintza planeamenduko arau subsidiarioak dituzten udaletan ezarri beharreko araubide iragankorra.

Era berean, bidezko da uztailaren 4ko 13/1994ko 191. artikuluko 2. zenbakia derogatzea, hiri-lurzoruan eskura daitezkeen hirigintza-aprobetxamendua finkatzen duten gainerako xedapenekin bat ez datorrelako, ageri-agerian, alegia, Foru Lege bereko 13. artikulua eta 130.2.aren.

Artikulu bakarra.- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994

Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitu zaio. Hona nola idatziko den:

“3.- Lurzoru urbanizagarriko lurren baten titularrak eskura dezakeen hirigintza-aprobetxamendua, lurra dagoen banaketa-esparruko aprobetxamendu tipoarean 100eko 85a dagokion azalerari ezartzetik ateratzen dena izango da.”

Xedapen iragankorra

Planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeari egokitu ez dioten udaletan, lur urbanizagarrian eskura daitezkeen hirigintza-aprobetxamendua izango da:

a) Lurzoru urbanizagarri programatuan, sektorearen batez besteko aprobetxamenduaren 100eko 85a, hala egokituz gero, hauxe kendu beharko delarik: sektorearen gehiegizko aprobetxamendua, dagokion lau urtekoaren batez bestekoarekiko edo Hirigintzako Jarduketa Programaren esparruarekiko.

b) Urbanizatzeko gai den lurzoruan, dagokion plan partzalean ezarritakotik ateratzen den aprobetxamenduaren 100eko 85a.

Xedapen Derogatzailerak

Derogaturik geratzen da Foru Lege honek xedatuari aurka egiten dion lerrun bereko edo apalagoko xedapen oro. Era berean, derogatu egiten da Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 191. artikuluko 2. zenbakia.

Azken Xedapena

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean Lege hau.

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, 1990eko Hitzarmen Ekonomikoaren 8.3. artikulua aldatzea eskatu duena, bereizkeriazko edozein alderdi kenduz

REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak, bereizkeriazko edozein alderdi kenduz, 1990eko Hitzarmen Ekonomikoaren 8.3. artikulua aldatzea eskatuz aurkeztu duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

MOZIOAREN EDUKIA

Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran:

1978ko Espainiar Konstituzioak zera adierazten du 14. artikuluan: "espainiarrak berdinak dira Legearen aurrean, jaiotza, arraza, sexu, erlijio irizki edo bestelako edozein baldintza edo zirkuntantzia pertsonal edo sozialetan oinarrituriko bazterketarik egiten ez delarik".

Halaber, 9.2. artikuluan adierazten denez, "botere publikoei dagokie gizabanakoa eta berau dagoen taldeen askatasuna eta berdintasuna errealak eta egiazkoak izan daitezen ahalbidetuko duten baldintzak sustatzea; haren osotasuna galerazi edo zaildu egiten duten eragozpenak ezabatzea, eta bizi politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean hiritar guztien partehartzea erraztea".

1982an, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoak zera aitortu zuen 44.artikuluari: Foru Komunitateak eskumen osoa duela emakumeari buruzko gaietan.

1991ko martxoan, Nafarroako Parlamentuak aho batez onartu zuen Emakumearen Berdintasunerako Plana. Plan honek, guztira sei diren ekin-tza-eremutatik, eremu juridikoa aipatzen du lehenik.

Nafarroako Emakumearen Institutuak bere funtzioen artean honako hau du: Europako Batasuneko eta nazioarteko araudiko legedia berdinzailea aplikatu eta garatzea.

1995eko abenduaren 22an, Europako Batasuneko Ministro Kontseiluak erabaki bat hartu zuen gizona eta emakumearen arteko Aukera Berdintasunerako Laugarren Programari buruz. Lehentasunen artean, berdintasun eskubideen egikaritzaren baldintzak sendotzea aipatu zuen.

Europako Laugarren Programak puntu hori azpimarratzeari eusten dio, "gizonak eta emakumeak berdinak gara Legearen aurrean" baieztapena maiz asko gezurtatu egiten baitute egintza zehatzek.

Nafarroan, gutxienik metro batzuk atzerago gaude, Foru Komunitatean zerga-ordainketak nolakoa izan behar duen definitzean Hitzarmen Ekonomikoak esaten duenari baldin bagagozkio, 8-3. artikuluan zehazten duen pertsona fisikoek famili-unitate bat osatu eta banakako zerga-ordainketa aukeratzeko ez dutenean, Nafarroaren ardura izango da Zerga (Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa) ordainaraztea, honako hauek Nafarroako lurraldean baldin badute egoitza: senarrak; aita edo ama, ezkontzarik existituko ez balitz edo ezkontza banantze judizialik balego, edo, aurrekoen ezean, famili-unitateko kide guztiek.

Guzti honetatik ondorioztatzen da emakumearen bigarren mailako egoera, menpekotasun anitzekoa posibilitate-multzo batekiko, bere egoera zibila eta/edo hainbat elkarbizitza-zirkunstantziaren arabera, haietako edonor Nafarroan bizitzen denean.

Desberdintasunek oraindik ere badiraute lan munduan sartzeari dagokionean, jarduera-porzentaian eta erabaki-hartzean parte hartzeari dagokionean.

Esku hartean daukagun eta mozio honen zio den gaian, aipatutakoaren erakusgarri bat aurkitzen dugu: zerga-ordainketari buruzko erabakia gizarte demokratiko eta partehartzaile bateko pertsonen ardura-gauzatze bat da; hala eta guztiz ere, lehen aipaturiko 8-3. artikulua emakumeak baztertzen ditu baterako aitorenaren formulari atxikitzen baldin bazaizkio; haren senar, aita edo amak Nafarroan baldin badu egoitza, emazte edo alaba izaerak bigarren mailan kokatzen du berriro, aintzinean bezala, honakoari jaramonik egin gabe:

alegia, familiaren ongizateari ekonomikoki laguntzeko ahalmen osoa, garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko ahalmen osoa, erabakiak hartzeko ahalmen osoa duten pertsonak garelako emakumeok.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak 1990eko Hitzarmen Ekonomikoko 8-3. artikulua eduki eta idazketa-aren aurka dagoela adierazten du, eta Hitzarmen Ekonomikoaren alderdi partzialen hurrengo negoziazio-prozesuan aipaturiko artikulua aldatzeko ere sar dadila galdetzen du, edozein alderdi baztertzailerik ezabatuz, gaurregun dituen kasu, sexu (emakumea) edo baldintza pertsonalei (egoera zibila) dagozkienak, gizon eta emakumeen Legearen aurreko berdintasun-printzipioa erabat eragin-ko egiterainoko bidean.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 20a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

Mozioa, Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroek (FOSHEZ) herritarrei eskaini dizkieten zerbitzuen onespenean eta kontsiderazioa onartu eta berretsi egiten duena

JOSE M^a EZPELETA MARTINEZ ETA ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen José M^a Ezpeleta Martínez eta Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentarek aurkeztutako Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroek (FOSHEZ) herritarrei eskaini dizkieten zerbitzuen onspenean eta kontsiderazioa onartu eta berretsi egiten duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

José María Ezpeleta Martínez "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari

atxikiriko Foru Parlamentariak eta María Isabel Arboniés Bermejo "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute Osasun Batzordean eztabaidatua izan dadin:

Duela hamalau urte Nafarroako Gobernuak Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroak (FOSHEZ) sortu zituen populazioari sexu osasunari eta ugalketari buruzko informazioa, heziketa eta laguntza emateko, osasun laguntzaren arloan hurbiltasun, pertsonalizazio eta isilpekotasun eriz-pideak betetz.

Famili Planifikaziorako jarduketak, zentzu zabalean harturik, antisorgailuak emateaz gain, hau da, sexuaren bidez kutsatzen diren gaisotasunei buruzko aholkuak, G.I.B.aren kutsapenari buruzko informazioa, diagnostikoa eta segimendua, gazteentzako laguntza berezia, haurdunaldiaren zainketa eta frogak, haurdunaldiaren

borondatezko etendurarako eskaerak eta abar, orduan bezain beharrezkoak edo beharrezkoagoak dira.

Herritar askok laguntza duin, pertsonalizatua, isilpekota eta espezializatua emanen dien zerbitzu baten beharra dute, ospitaleetatik eman ezin zaiena, hauek ez baitira prebentzioa, informazioa edo heziketa eskaintzeko egokienak, betebeharrak hauek Oinarrizko Osasun Laguntzari dagozkio, hau baita, gainera, hiritarrendandik hurbilen dagoen maila.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau aurkezten dute:

1. Hurbiltasunean, laguntzaren isilpekotasunean, hiritarren arazoaren konponbidean eta arlo anitzetako taldeen funtzionamenduan oinarrituz,

FOSHEZek populazioari eskaintako lan eta zerbitzuen onarpena eta esker ona.

2. Zerbitzu honetan lor daitezkeen edozein hobekuntzak eskaintza zabalagoa ekarri behar du, dagoen eskaeratik abiatuz, egungo zentroak eta langilegoa dauden bezala utziz.

3. FOSHEZak Oinarrizko Osasun Laguntzaren barnean egon behar dutela berretsi, Nafarroa osoko unitateek sexu eta ugalketa osasunaren heziketa, prebentzio eta laguntzaren arloetan izandako lan zehatzak koordinatuko dituen Zuzendariorde baten bitartez, eta aldi berean arlo honetan sor daitezkeen beharrei erantzuna ospitaleen laguntzarekin koordinatuz.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20an

Foru Parlamentariak: José María Ezpeleta Martínez eta María Isabel Arboniés Bermejo

F Saila:
GALDERAK

Kable bidezko telekomunikazioen lurralde-barruti bakarra sortzeari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak kable bidezko telekomunikazioen lurralde-barruti bakarra sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Félix Taberna Monzón, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko bozera-

maleak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan honako galdera hau egiten du:

Nafarroako Gobernuak kable bidezko telekomunikazioetarako barruti bakarra sortzea bultzatzeko borondatea adierazi du berriki; honi dagokionez, proposatutako barrutian sar daitezten 1.500 biztanle baino gehiago dituzten toki entitatei gonbitea egiteko asmoa iragarri du.

Horrenbestez, jakin nahi da:

– Zer dela medio kanporatzen ditu Nafarroako Gobernuak 1.500 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak kable bidezko telekomunikazioetarako barruti bakarra zehazteko ekimenean?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21ean.

Bozeramalea: Félix Taberna Monzón.

Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egiteari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnaek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Parlamentari honek jakin duenez, Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutu proiektua egin du, aurreko araudia neurri handi batean aldatzen duena. Honen xedapen gehigarrietako batean araudi honek Nafarroan izan dezakeen ezarpena aipatzen da.

Horrenbestez, parlamentari honek jakin nahi du:

– Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Estatutu Proiektua deiturikoaren berri ba ote duen.

– Honen erredakzioan parte hartu duen edo Gobernu zentralak bere iritzia eskatu ote dion.

– Gobernu zentralarekin bileraren bat egin izan duen, bakarka nahiz Komunitate Autonomoetako

beste gobernu batzuekin batera, aipatutako lege proiektua aztertzeko edo eztabaidatzeko.

– Proiektuari darion filosofia orokorrarekin bat datorren.

– Nafarroako Funtzio Publikoaren Estatutua balizko arau orokor honen arabera egokitu behar ote duen, eta hala bada, zehazki nola egin behar duen egokitzapena.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bilerei eta beste arazo batzuei buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bilerei eta beste arazo batzuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, -Eusko Alkartasuna- Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Biltzarreko Erregelamen-

duan ezarririkoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

– 97/98 ikasturteari dagokionez, Matrikulazio Batzordeak egin dituen bilerak eta hurrengo hila-beteetarako aurreikuspenak.

– Epe ofiziala bukatzean Nafarroan 3 eta 4 urtekoen prematrikulan zenbat ikasle zeuden zentro eta hizkuntza eredu bakoitzean.

– Zentroen datuak, aurrematrikulatuen kopurua gehiegizkoa den kasuak zehaztuz.

– Zentro, maila eta hizkuntza eredu bakoitzean gehiegizko aurrematrikulekin zer egingo den zehazteko arrazoizko proposamenak.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean izandako elkarrizketei buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean izandako elkarrizketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak berriro ekin die Aragoiko Diputazio Orokorrarekin zeuzkan elkarlanerako kontaktuei Iruñea-Jaca-Huesca ardatzari zegokio-nean. Kontaktu hauen ondorioz, itun bat sinatzea proposatu da komunikabide honen trazadura eta ezaugarriak definituko dituen azterketa tekniko bat kontratatzeke. Horretarako, zera aurrakusten da: Sustapen Ministerioa izan dadila azterketa kontratatzearen arduradun, eta Nafarroako Gobernua izan dadila zuzendaritza teknikoan ekonomikoki parte hartuko duena. Hau guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

1- Zer nolako kontaktu eduki ditu Nafarroako Gobernuak Aragoiko Diputazio Orokorrarekin?

2- Aipatutako ituna zein terminotan doa proposatzera?

3- Aurreikusitako berehalako iharduketak buruzteko ba al dago prestatutako egutegirik?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19a

Foru Parlamentaria: Miguel Ángel Larrayoz Lezaun

Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Nazioarteko simposium batean, Líneas Aéreas de Navarra (LAN)-en konpainia operatzaileko zenbait zuzendarik zera baieztatu zuen: Foru Gobernuak hegaldi-konpainia erregionalaren kapital sozialaren %50erainoko kuota ere har lezakeela.

Gai honi buruz, honako hau jakin nahi litzateke:

1- Zein da kapital publikoaren partehartze portzentuala Air Track enpresan (CAN edo beste enpresa publiko batzuk)?

2- Nafarroako Gobernua hartzera al doa, enpresa publikoen bitartez, Air Track-en kapitala-

ren %50ekoa ere izateraino iritsi daitekeen parte-hartze bat? Zein epetan egitera doa? Zein parte-hartze-portzentaiarekin?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 16a

Foru Parlamentaria: Miguel Ángel Larráyoiz Lezaun

Beste estatu batzuetatik datozen zainzurien osasun kontrolari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak beste estatu batzuetatik datozen zainzurien osasun kontrolari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184 artikuluan eta hurrengoetan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Berriki, Alacant-eko kontserba-etxe baten zainzuri-latetan, produktua Perukoa izanik, botulismoa agertu izana salatu da. Hirugarren herrialdetatik produktu hau inportatzea, kostuak direla-eta, konkurrentzia desleiala dela alde batera utzirik, badago desberdintasun argi bat, Europako Batasunaren osasun-exijentziak direla medio, Peru bezalako hegoamerikar herrialdeenekin konparatuz gero.

Honen aurrean, zera jakin nahi litzateke:

1- Hartu al du Nafarroako Gobernuak hirugarren herrialdetatik ekarritako zainzurien osasun-kontrola egiaztatzeko neurririk?

2- Nekazal organizazioek Nafarroako zainzuriaren kontsumoa aholkatzeko hasitako kanpainen bat egingo al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Huarte enpresak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruzko galdera

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Huarte enpresak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 199. artikuluan ezarritakoaren babesean, 1987tik 1991ra bitarteko epean HUARTE enpresak Foru Ogasunarekiko betebeharrak bete zituen eta zegokiona ordaindu zuen argitze-ko Kontu Ganbarari fiskalizazio txostena eska ziezaiotela galdatu zuen Parlamentuko Mahaiaren eta Bozeramaleen Batzarraren aurrean. Izapidatua izateko dauden zailtasun juridikoak direla-eta, eta Parlamentuko Erregelamenduko 184.ean eta

hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean, txostenaren eskakizuna Nafarroako Gobernuari egindako galdera bilakatzen da, idatzizko erantzuna izan dezan.

Nazio mailako komunikabide batean argitaratu denez, 1989ko abenduan Estatuaren Ikuskaritzak 1987. urteari zegokion sozietateei buruzko zergaren 399 milioi pezeta ez ordaintzeagatik akta jaso zuen. Harrigarria bada ere, Tributu Agentziak ez zion ohartarazi Huarteri tributu zorraren likidazioaz. Halaber, Nafarroan enpresa aktiboenetakoa dela esaten da, eta 1987tik 1991ra bitarteko epean orduan Gobernuko Lehendakari zen Gabriel Urralbururi eta Antonio Aragón Herri Lan Kontseilariari 50 milioi pezeta ordaindu zizkiela diru komisiotan.

Enpresa honek Nafarroan du helbide fiskala eta beraz bere tributu betebeharen zati bat Nafarroari zegokion. Tributu Agentziaren eta Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arteko lankidetzak ikusirik, uste dugu jarduera ikuskatzailea komunikatu beharra dagoela, edo kortesiak hala eskatzen duela, behintzat. Honez gain, esleipen prozesuan, segurtasunean, diru komisioen ordainketan eta abarretan oraindik argitu ez diren usteko irregulartasunak ikertzen

ari dira Nafarroako Gobernuak enpresa honi esleitu zizkion lan ugarritan.

Honengatik guztiarengatik, eta Huarte enpresak Nafarroan duen egoera fiskala argitu nahian, jakin nahi da:

1. Bete al zituen Huarte enpresak Foru Ogasunarekin dituen betebeharrak fiskalak eta ordaindu zituen 1987tik 1991ra bitarteko epeari dagozkion likidazioak?

2. Foru Ogasunak ikuskapenen bat egin al du edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Estatuaren ikuskapenaren berri eman du?

3. Tributu Agentziak ebazpen administratiboaren berri eman al zion Nafarroako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari ikuskaritza aktaren ondoriozko tributu likidazioa egiteko? Bestela izanez gero, eta aktarekin adostasunik ez bazegoen, dagokion helegitearen aurkezpenaren berri eman al da, kuota zergatik ez den ordaindu, kauziorik dagoen ala ez, edo gai honi buruzko beste edozein informazio emanez?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren

"Cobra 97" izeneko ariketa militarrei buruzko galdera

JAIME IRIBARREN IRIARTE FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak "Cobra 97" izeneko ariketa militarrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jaime Iribarren Iriartek, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelemanduko 184 artikuluan xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten dio Lehendakari-tza eta Barne Departamentuari:

– Zein udalerrri ukituko dituzte Cobra 97 deituriko maniobra militarrek?

– Ukitutako eremuan honelako ekintzek sortzen dituzten kalteak eta gaitzespen zabala ikusirik, maniobra hauek egiteko baimenak emateko, kontutan hartu al ditu Departamentuak mugimendu hauetan parte hartuko duten militarren kopurua, unitate motak, ibilgailuak eta pertsonak zehaztuz? Departamentuak datu hauek izanez gero erantzunarekin batera eman ditzala.

– Zenbat jardunalde izango dira eta noiz arte egongo dira mugaturik edo erabilera militarrek ukiturik?

– Nolako neurri zehatzak hartuko ditu nafar exekutiboak maniobra hauen aurrean?

– Egia al da Nafarroako Diputazioak Zizurreko Zendearen dagoen Francoandia soroa, edo honen zati bat, utzi duela maniobra hauek egin daitezen?

– Honela bada, ondare foralaren soro publikoak maniobra militarrek egiteko uztea Exekutibo nafarraren ohiko jokabidea izanen da aurrerantzean?

– Nafarroako Gobernuak ba al du Erreniega mendikatea ez militarizatzeko eskatu duten inguruko biztanlearen borondate argia errespetatzeko asmorik?

– Erreniegako mendikatea Iruñerriko arauen

aurrerapenean parke komarkala izatea aurreikusten dela hartu al da kontutan?

– Udalek eskatu eta Erreniegako Parke Eolikoaren plangintzan aurreikusten den bezala, Departamentuak martxan jarri al du Erreniegan nolabaiteko babesa ezar dezakeen azterketarik edo proiekturik?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20an

Foru Parlamentaria: Jaime Iribarren Iriarte

Tuterako Juduei buruzko Jardunaldiak egiteari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Juduei buruzko Jardunaldiak egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak lankidetzak hitzarmena sinatu dute Tuteran Juduei buruzko Jardunaldiak antolatzeko, ospakizuna bi urtetan behin egingen delarik.

Nafarroako Gobernuak, Vianako Printzea Erakundearen bitartez, Juduei buruzko Topaketen antolaketaz, gauzatzeaz eta ebaluaketa teknikoaz arduratzen da, honek dakartzan gastuak bere gain hartuz.

Unibertsitate Publikoak plangintzaren eta edukizientifikoaren ardura hartzen ditu.

Jakina denez, Tuterako Udalaren sentsibilitateak, hiriko hainbat bizilagunen bitartez, bultzatu eta gauzatu zituen aspaldian mota honetako jardunaldiak.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

1. Nolako betebeharra uzten zaio Tuterako Udalari, baten bat uzten bazaio behintzat, jardunaldien antolaketari dagokionez, hitzarmena sinatu duten erakundeek baino askoz lehenago honi buruzko sentsibilitatea bultzatu zuena izan zela kontutan hartuz?

2. Zer arrazoiengatik ez da beharrezkotzat jo bere parte hartzea Juduei buruzko Jardunaldiak antolatzeko sinatu den lankidetzak hitzarmenean?

3. Zein da Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna Tuterako Udala Juduei buruzko Jardunaldiak antolatzeko lankidetzak hitzarmenaren izenpetzetik baztertzean?

4. Nafarroako Gobernuak, bere izaeraz baliatuz, hitzarmenean Tuterako Udalak izendatutako ordezkariak sartzeko pentsatzen duen.

5. Eta, azkenean, Gobernuak, Jarraipen Batzordearen bitartez besterik ez bada ere, eta dagozkion bi batzorkide postuetako batean, bere garaian ekimen hau bultzatu zuten pertsonetako bat sartzeko beharrezkotzat jotzen duen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Gizarteak eta herritarrak parte hartzeko organo aholkulariei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gizarteak eta herritarrak parte hartzeko organo aholkulariei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Gero eta demokratikoagoa den gizarte baten sendotzea, botere publikoek hartzen dituzten erabakien osaketa-prozeduretan gizarte sektore eta eragile desberdinen parte hartzearen bidez lortzen da piskanaka.

Azken urteetan Foru Komunitatearen Administrazioan sendotuz joan den parte hartzeko moduetako bat gizartearen eta hiritarren partizipazioarako organo aholkulariak dira, Batzorde eta Kontseilu desberdinak sortuz. Administrazio publiko burokratizatua izatetik urruti, interesa duten giza erakundeak ordezkaturik dauden kontseilu eta batzorde sektorial kopuru handia izateak insti-

tuzio publikoen sentsibilizazio demokratikoa, gero eta handiagoa, adierazten du. Horrez gain, Batzorde eta Kontseilu hauen kostua oso murrizta edo eskasa izaten da kasu gehienetan.

Gizartearen eta hiritarren partizipazioarako organo aholkulariak direla-eta, honako galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren organo aholkulariak, eskumena duen gai desberdinetan? Zer Departamenturen menpe daude eta nolako gaietan aritzen dira?

2. Noiz eta nola (Legea, Dekretua, Erabakia...) sortu da aipatutako organo bakoitza?

3. Zenbat bilera egin dituzte aipatutako organo aholkulariek azken hiru urteetako bakoitzean?

4. Zenbat dira organo aholkulari hauetan ordezkaturiko erakunde publiko nahiz pribatuak?

5. Zein izan da azken bi aurrekontu urtealdietan kontzeptu guztiak barne (langilegoa, funtzionamendu gastuak, ekitaldiak, hitzarmenak, dirulaguntzak eta abar) organo aholkulari bakoitzak izandako kostua?

6. Komenigarritzat edo beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak eskumena duen beste gai batzuetan organo aholkulari berriak izatea erabaki publikoak hartzean giza sektoreen parte hartzea handitzeko?

Iruñean 1997ko maiatzaren 21ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Zenbait organizazio kontserbaziozale eta ekologistak berri beren kezka agertu dute Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua Nafarroako hezeguneentzat presatzen ari den kontserbazio-neurriengatik. Zenbait ehiztari-elkarteren ordezkariak, prentsa-artikuluek eta aldizkari espezializatuek egindako adierazpenek sortu dute kezka hau. Hauek posible jotzen dute hurrengo denboraldian ur-hegaztien ehizaren luzapena baimentzea babesturiko edo mehatxatutzat sailkatutako hainbat hegazti-lertxun hauskara (ardea cinerea), erralido batzuk edo zenbait anatido, adibidez- beren ugalketa-aldia hasia duten garaira.

Baimen honek arrisku nabarmenean jar lezake hezeguneen eta hauetan beren habitata duten ur-hegaztien babesa, obligaziozkoak diren analisia eta ur-hegaztien populazioen jarraipen-azterketen ondorioz egin ezean.

Ur-hegaztien ehizaldia luzatzeko baimena eta gure komunitatean horrek izango dituen ondorioei buruz, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1- Itundu al du Ingurugiro-Departamentuak Nafarroako organizazio edo ehiztari-elkarteren batekin ur-hegaztien ehizaldiaren luzapena 1996-1997 denboraldiarekiko? Luzapen hori aurrikusia

al du? Ekainaren 14ko 560/1996 Foru Agindua, 96-97 denboraldirako ehiza-debekaldiei buruzkoa, ezertan aldatzea beharrezkotzat jotzen al du?

2- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipaturiko aldaketa edo luzapena aurrikusia baldin badu, nork egin du proposamena? Berau irmoki onartua izan al da? Nork onartu du? Zer dela eta? Zeintzuk izan dira halako aldaketaren aldeko arrazoi biologiko, zientifiko edo teknikoak?

3- Aipaturiko aldaketa edo luzapenari buruz, zein izan da Nafarroako Ingurugiro-Kontseiluaren aurretiazko irizpena? Eta aurretiazko izaeraz Ehi-zari buruzko Batzorde Aholkulariak eman behar duena?

4- Zenbatetan jotzen da honako hauen populazioa Nafarroan: antzara hankagorritza, zertzeta arrunta, uda-zertzeta, basahatea, kopetazuri arrunta, hegabera, istingor arrunta eta istingor txikia? Zein azterketa burutu dira azken bost urte hauetan espezie hauek Nafarroan duten populazioa determinatzeko? Nork agindu zituen eta nork burutu zituen, eta zein izan da horietako bakoitzaren kostua? Zein datatan eskatu ziren eta zein datatatik egon dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren esku-ra?

5- Zeintzuk izan dira aipaturiko ur-hegaztien ehizaren emaitzak 1996-1997 denboraldian? Hegazti hauen zenbat ale jotzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ehizatu direla Nafarroan? Estimaturiko populazioaren zein zati da kopuru hori, portzentia bidez adierazita?

6- Zein kontrol egin du Ingurugiro-Departamentuak ur-espezie hauen joan den denboraldiko ehiza debekualdiei buruzko Foru Aginduaren edukira egokitzen dela bermatzeko, beste espezie edo balore naturalak kaltetu gabe? Datorren denboraldirako zein kontrol ezartzeko asmoa dago?

7- Nafarroako zein lekutan egin da nagusiki ur-hegaztien ehiza? Horietako zeintzuk dira naturgune babestu (habitaten kontserbazioari buruzko 92/43 Arteztarauan aipaturiko habitat-a, alegia), hezeguneen Inbentarioan sarturiko hezegune, Hegaztien Babesgune Berezi edo babeserako beste figura bat?

8- Ur-hegaztien ehiza dela eta, beste espezie ez zinegetiko edo Mehatxaturiko Espezieen Katalogetan sarturikori tiro egin zaionik, edo berauek zauritu edo hil izan dituztenik detektatu al du Ingurugiro-Departamentuak? Espezie ez zinegetiko edo mehatxatutako hauetako zeintzuk eta zenbat kaltetuak edo hilak gerta izan litezke ur-hegaztien ehiza dela medio?

9- Debekualdiei buruzko Foru Aginduak xedatutakoaren kontra zona hezeetan ur-hegaztiak edo beste espezieak ehizatu izana dela eta, jaso al du Ingurugiro-Departamentuak inolako salaketarik? Zenbat? Zein aldetan antzeman zaie arau-hausteei? Zenbat zehapen ezarri du Ingurugiro-Departamentuak? Zein zenbatakorekin? Ezgaitu izan al da inoiz urratzailerik?

10- Ur-hegaztien ehizak lertxun hausgara, erralidoak eta anatidoak bezalako babesturiko espezieak kaltetu ez ditzan, bereziki ugalketa-aldietan, zein neurri zehatz hartzeko asmoa du Ingurugiro Departamentuak?

11- Ba al dirau Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ur-hegaztien jarraipen-azterketak egiten? Hala balitz: Zer azterketa ari dira burutzen gaur egun? Zer azterketa entregatu dira azken urtean zehar?, eta datozen hiru urteetan zer jarraipen- eta kontrol-azterketa egitea dago aurrikusita? Zenbatetan jotzen da beren kostua?

12- Ongi irizten al dio Ingurugiro Departamentuak Nafarroan ur-hegaztien ehiza debekatu edo neurririk handienez mugatzeari, beste Erkidego Autonomo batzutan egin den bezalaxe? Azken hamar urteetan, zein urte eta datatan baimendu da Nafarroan hegazti hauen ehiza, legeen arabera?

13- Komenigarritzat jotzen al du Departamentuak haien ehizaldia azaroan edo, nolahi ere, urtarrilaren 6a baino lehenagoko data batean ixtea?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Las Cañasko aintziraren zaintza zerbitzuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Las Cañasko aintziraren zaintza zerbitzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko foru parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Las Cañasko aintzira natur erreserba, hegaztien babesgune berezi eta Nazioarteko Garrantzia

duen eremu heze izendatua izan da, eta, beraz, bere kontserbazioa bermatuko duen zaintza berezia behar du.

Las Cañasko Aintziraren zaintza zerbitzuaren egoera dela-eta, ondorengo galderak erantzutea eskatzen da:

1. Ingurugiro Departamentuak kendu al du Las Cañasko aintzirako zaintza berezia? Erantzuna baiezkoa izatekotan: Zer dela-eta?

2. Zenbat ingurugiro zaindari zaintzen ari dira aintzira? Zer txandatan egiten dute?

3. Nolako neurri zehatzak aurreikusi ditu Ingurugiro Departamentuak nazioarteko garrantzia duen hezegune honen zaintza eraginkorra bermatzeko?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruzko galdera

XOTERO ETXANDI JUANIKOTENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioaren kidea den Xotero Etxandi Juanikotena, Ganbararen Arautegiaren 184. artikularekin eta ondokoekin bat etorritik, Diputazioari ondoko galdera hauek zuzentzen dizkio idatziz erantzun ditzan.

Ba al daki Nafar Gobernuak Gizarte Segurantzako Instituto Nazional izenekoak Doneztebeko bere Informazio eta Aholkugintzako Zentroan erdaldun bat jarri nahi duela arduradun?

Gaur indarrean dagoen legedian Doneztebe eta zonalde osoa eremu euskaldunean, hau da biztanlegoa gehienbat euskaraz mintzatzen den inguruan, dago kokatua. Zein neurri aurreikusi ditu Diputazioak arazo zehatz honen aurrean?

Aipatutako Institutuak zerbitzatuko duen eskualdeko herritar guztien hizkuntz eskubideak zainduko direla ziurtatzeko bere esku dituen baliabide guztiak erabiltzeko prest al dago Nafarroako Foru Diputazioa?

Iruñean, 1997ko maiatza

Foru Parlamentaria: Xotero Etxandi Juanikotena

Nafarroako Gobernuak Donejakue Bidea dela eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Donejakue bidea dela eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Nafarroako Gobernuak Done Jakue Bidearen Adiskideen Elkartearekin zenbait bilera egin ditu 1999ko Urte Jakobeoa prestatzeko. Prentsan azaldutako berrien arabera, bilera hauetan aterpeak hobetzeko, erromesen, bideetako eta herrietako segurtasuna handitzeko, seinaleak berjartzeko eta hobetzeko, eta monumentu jakobeoak zaintzeko hainbat proposamen egin dira.

Hirigintza, kultura, turismoa eta beste zenbait arlotan jarduera desberdinak egin ditu Nafarroako Gobernuak Done Jakue Bidean. Garrantzi handiko inbertsioa egin du Nafarroako Gobernuak Bidean, inguruan eta honekin zerikusia duten zenbait jardueratan, eta dirudienez inbertsioak egiten segitzeko asmoa du.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak Done Jakue Bidean egin dituen jarduerak eta aurreikiak dituenak direla-eta, ondorengo galderak erantzutea eskatzen da:

1. Hirigintzaren ikuspegitik begiratuta, zeintzuk dira Done Jakue Bidea zaintzeko Nafarroako Gobernuak 1987tik hona egindako jarduerak?

2. Nafarroako Gobernuak desjabetu eta berarentzat hartu al du Done Jakue Bidearen trazadura osoa Nafarroaren barnean? Zeintzuk dira desjabetutako edo hartutako zatiak? Zeintzuk geratu dira desjabetu gabe?

3. Zenbat diru inbertitu da urtez urte Done Jakue Bidearen desjabetzapen edo eskuratzean?

4. Nafarroako Gobernuak Baztandik datorren Done Jakue Bideko bigarren mailako adarra babestu, berreskuratu eta bultzatzeko asmorik al du, inguru hartako udalek behin eta berriro eskutatukoari jarraikiz?

5. 1987tik, Done Jakue Bidea fisikoki berreskuratzeke, nolako jarduerak egin ditu Nafarroako Gobernuak: garbiketa, basoak sortzea, atsedenguneak, iturriak, askaldegiak, zuhaitz landaketak, monumentuak, eskulturak, seinaleak edo ibilbidearen identifikazioa? Urtez urte zenbateko inbertsioa egin da kontzeptu hauetan eta zein udalerritan?

6. Aurreko puntuan aipatutako jardueren tankerako zein jarduera aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak 1999ko Urte Jakobeoari begira? Zenbat diru aurreikusten da jarduera horiek aurrera eramateko?

7. Nolako jarduerak egin ditu 1987tik Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Done Jakue Bidearekin harreman zuzena duten aterpeak,

monumentu historikoak, toki historikoak eta herriak babesteko, erabiltzeko, ezagutarazteko eta birgaitzeko? Zein izan da urtez urte jarduera hauen kostua?

8. Aurreko puntuan aipatu direnetatik, zeintzuk dira Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 1999ko Urte Jakobeoari begira aurreikusten dituenak? Jarduera horiek aurrera eramateko zenbateko kostua kalkulatu da?

9. Nolako jarduerak egin ditu 1987tik Turismo Departamentuak Done Jakue Bidea ezagutarazteko, erromesen erabilera eta gozamenarako, segurtasuna babesteko, aterpe, turismo gida, seinale, eta abarretan? Zein izan da jarduera hauen kostua urtez urte?

10. Aurreko puntuko jardueretatik, zeintzuk aurreikusten ditu Turismo Departamentuak 1999ko Urte Jakobeoari begira? Jarduera horiek aurrera eramateko zein da aurreikusitako kostua?

11. Zer proposamen egin dizkio Done Jakue Bidearen Adiskideen Elkarteak Nafarroako Gobernuari berriki izandako bileran edo bileretan? Haietatik zeintzuk jotzen dira arrazoizkotzat? Nork ordainduko ditu? Zein da gutxi gorabehera proposatutako jardueren kostua eta zein hasieran aintzakotzat hartutakoena?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Botulismo-kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak botulismo-kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Osasun eta Kontsumo Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiak Alacanteko kontserbera batek Perutik inportatu eta komertzializatu dituen zainzuri kontserben badaezpadako gelditzea agindu du Madrilen antzemandako botulismo kasuen sorburua izan daitezkeelakoan.

Era berean, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak abisua eman zien Komunitate Autonomoetako agintariei, produktu susmagarri hau merkatuan aurkitzea zaila izan arren, aurkituz gero badaezpada geldiaraz zezaten.

Gure Komunitateko nekazal erakundeek gogorki salatu dituzte merkatuen liberalizazioaren ondorioz beste herrialde batzuetatik egiten diren zainzuri inportazioak, Peruren eta Europako Batasuneko herrialdeen artean ekoizpen nahiz fabrikazio kostuak konparagarriak ez direnez, kalte handia egiten baitiete ekoizleei.

Parekoak ez direnen arteko lehia honi osasun kontroletan eskakizun maila txikiagoa gehitzen badiogu, oso egoera kezagarrian aurki gaitezke. Egoera honi aurre egiteko Nafarroako Komunitateko Administrazioek egin dezaketen gauza bakarra kontsumitzaileei erosi eta kontsumitzen dituzten kontserben jatorria arreta handiz begira dezatela behin eta berriro aholkatzea da, osasun berme handiagoa duten Nafarroako zainzuri lehentasunezko kontsumoa gomendatuz.

Botulismo kasuak, Perutik inportatutako zainzuri osasun baldintzak eta gure Komunitatean dituzten ondorioak direla eta, galdera hauek erantzutea eskatzen da:

1.- Incovega S.L. enpresak Perutik inportatutako La Niña del Segura markako zainzuri kontserbak gure Komunitateko merkatuan dauden jakin al du? Hala balitz, aipatutako markako produktua geldiarazi al du badaezpada? Zer kopurutan?

2.- Nafarroako kontserberek Perutik inportatutako zainzuriak komertzializatu ote dituzten jakin al du Nafarroako Gobernuak? Hala balitz, zenbat zainzuri inportatzen dituzte Perutik enpresa nafarrek? Gure Komunitatean komertzializatzen diren zainzuri kontserbetatik zer portzentaia dagokie hauei? Nork gainbegirutzen du inportazio hauen jatorria?

3.- Nafarroako Administrazioiko zein administrazio unitatek egiten du nafar kontserberentzat Perutik inportatzen diren zainzuri kontserba poteen osasun kontrola? Nolako osasun azterketak egiten zaizkie? Nolako maiztasunaz egiten dira (kamioien kopurua, produktuen kopurua eta laginen maila kontutan hartuz)?

4.- Kontserba poteetako zainzuriak nondik datozen modu argian bereizi ahal izateko etiketei dagokienean legearen aldetik zerbait egitea pentsatu al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatiari dagokion kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatiari dagokion kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Adolfo Araiz Flamariquek, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko bozeramaileak, Parlamentu-

ko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek egiten dizkio Herrilan Departamentuari, idatziz erantzun dakizkion:

– 1997ko indarreango ekitaldiari dagokion aurrekontuko kontusailetik, zer kantitate gastatzea du aurreikusia Departamentuak N-1 errepidean Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan zatian?

– Ba al du Departamentuak aurten bertan zati horretako destolesterako proiektu tekniko eskatzeko asmorik, bereziki Etxegarateko mendateari dagokiona? Dagoeneko existitzen baldin bada, zer irtenbide tekniko proposatzen den, eta zer fase administratibotan aurkitzen den lanen esleipen edo egitearen izapidetzea.

– Zer kontaktu, eta zer nolako emaitzarekin, izan ditu Gipuzkoako Aldundiarekin aipatutako mendatea destolesteko?

– Aipatutako errepide-zatiaren problemak konpontzeko gipuzkoar erakundearekin bitariko batzorde bat eratzeko asmorik ba al du Departamentuak?

– Datozen aurrekontu-ekitaldietarako, zer nolako aurrekontu-esleipen aurrikusten du Departamentuak aipatutako destolestearantz?

Iruñea, 1997ko maiatzaren 23a

Bozeramalea: Adolfo Araiz Flamarique

Gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruz eginiko galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hau dio:

1.- Entitate pribatu horiendako dirulaguntza modulua ez da 91/92 ikasturteetik aldatu, alegia, Departamentuaren lehentasunak LOGSE delakoaren aplikazioa direnetik. Halarik ere, jarduera horiek burutzeko aurrekontuetako kopurua %22,58 gehitu da aurtan.

2.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Aurrekontuei buruzko Legean aurreikusiriko bai-

menak oso-osorik bete behar ditu. Murriztuak direnez, posible da, bai eskera gehienei kasu egitea, bai gutxiagori, baina diru gehiagoz. Lehena egitea erabaki da.

Bestaldetik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak hezkuntza berrikuntza segitzen du lehentasunezkotzat jotzen. Datozen urteetan, Prestakuntza Ikastaroei aurre egin beharko zaie (hasiak gara egiten), Lanbide Heziketa berria deritzonaren barruan. Hori funtsezko esparrua da, bai hezkuntza sistemarako, bai Nafarroako ekoizpen sistemarako eta ekipamenduan inbertsio handiak beharko ditu. Horregatik, irakasuntza arautuen berrikuntza bukatzen ez den bitartean, uste izatekoa da bestelako irakaskuntzendako dirulaguntzak ukituak izanen direla, Departamentuaren aurrekontuei dagokienez, behintzat. Izan ere, euskararen irakaskuntza helduen artean bultzatzea xede duten entitate pribatuek beste iturri batzuetatik har ditzakete eta hartzen dituzte laguntzak eta dirulaguntzak, hala nola, udaletatik.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 1997ko apirilaren 4ko 41 zk.an, argitaratu zen Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdira eskaerak aurkezteko epea bukatu, eta aipatu deialdiaren 4. Oinarrian ezarritakoarekin bat, ondoren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen da.

Onartuak:

Domeño Zaro, Aitor
Echarri Osinaga, Eva
Eneterreaga Etxepare, Nora
Forcada Orbegozo, Federico
García Andueza, Aintzane
Irigoyen Maritorea, M^a Sagrario
Lejardi Saldias, Isabel
Lopetegi Olasagarre, Concepción
Montoya de Antonio, Esther

Montoya de Antonio, María
Olaechea Estanga, M^a Asunción
Oyarzabal Zubieta, M^a Dolores
Saenz de Zaitegi Perrino, Estibaliz
Urdangarin Goñi, José Luis
Urquiaga Guinea, Irene
Zabaleta Santesteban, Asunción

Baztertuak:*

Aranguren Herrera, Sergio
Ardanaz de Carlos, David
Fernández de Piérola Martínez, Mercedes
Goicoechea Fernández, Iñaki Joseba

* Deialdiaren 2. 2.1 Oinarrian, c) atalean, ezarritako betebeharrak ez egiaztatzeagatik.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---